TAC! Festival de Arquitectura Urbana

TAC! Festibalaren Kultur Jarduerei buruzko Egitaraua

Sestao



Txostena
2026ko urriaren 9a

Zer da TAC!?

TAC!
Hiri Arkitekturako Festibala

TAC! urteko festibala da. Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak antolatzen du, Arquia Fundazioaren laguntzaz, eta arkitekturaren berrikuntza eta esperimentazioa sustatzen ditu behin-behineko pabiloia eraikiz Espainiako geografiako hiri desberdinetan.

Festibalak arkitektura garaikidea, gazteen jarduna eta hiriari eta gizarteari buruzko hausnarketa batzen ditu pabiloiaren inguruko topaketa eta kultur jardueren bidez. Bertan arituko dira herritarrekin solasean. TAC! abiarazi zenetik, esperimentazio- eta hausnarketa-gune gisa finkatu da arkitektura iragankorrak espazio publiko dinamikoak, inklusiboak eta jasangarriak eraikitzeko izan dezakeen eginkizunari buruz.

Granada, Donostia, Valentzia, Vigo, San Fernando, Alacanteko Mediterraneo Etxea eta Kanaria Handiko Las Palmasetik pasa ostean, festibala berriz itzuliko da 2026an edizio bikoitzarekin bi kokagune enblematikoetan: Bartzelonako CCCB eta Sestao.

Festibalak bere eginkizunarekin dirau, hau da, arkitektura garaikidea herritarrei hurbiltzea hiri-eremua berrirudikatzen duten instalazio berritzaileen bidez.

Hiriek gero eta erronka konplexuagoei aurre egin behar dieten munduan, arkitektura suntsikorra funtsezko tresna da bizitzeko modu berriak arakatzeko, gizartearen elkarrekintza sustatzeko eta ingurune eraikiaren etorkizuna zalantzan jartzeko.

Aurreko edizioak



Sestao

Sestao

Labe Garaia Parkea

Festibala Labe Garaia parkean kokatuko da, hain zuzen ere, 1. Labe Garaiaren azpian dagoen plaza batean, hiriko industria-ondarearen mugarri nagusietako bat eta hiria berroneratzeko prozesuaren sinboloa.

Kokagune honek zuzeneko elkarrizketa ezartzen du industria-memoriaren eta arkitektura garaikidearen artean. Horri esker, festibaleko behin-behineko pabiloiak hiri-esperimentazioko gailu gisa funtzionatuko du, eta gai izango da tokiko ekoizpen-iragana berrinterpretatzeko eta espazio publikoaren erabilera-modu berriak aktibatzeko.

Testuinguru horretan, pabiloia espazio irekia eta funtzio anitzekoa da kultur jarduerak, tailerrak, herritarren topaketak eta festibalarekin lotutako programazioa hartzeko. Hala, tokia topaketa-gune gisa finkatuko da ondarea, herritarrak eta arkitektura garaikidea elkartzeko.

TAC! Festibalaren Kultur
Jarduerei buruzko Egitaraua

Gaiak

Esku-hartze taktikorako espazio publikoa aktibatzea

Hiri-arkitekturaren jaialdia

Arkitektura (gaztea)

Hiri-arkitekturaren jaialdia

Biziberritzea (industria-ondarea)

Hiri-arkitekturaren jaialdia

TAC! Valentzia Festibalaren inaugurazioa

Eztabaidak

01

Jatorria eta Eraldaketa

Industria-lurraldetik hiri garaikidera

02

Lanaren kultura

Industria pertsonen ikuspegitik

03

Industria eta ikaskuntza

Industria prestakuntza-gune gisa

04

Erabilera berriak

Jasangarritasuna eta hiri-etorkizunak

Egitaraua

01 Opening

02 TAC! proiektuen erakusketak

01 Ondarearen Europako Jardunaldia

02 Industrial Saturdays

03 Arkitektura gaztearen topaketak

05 LabeART saioak

01 Labe Garaien nazioarteko topaketa

03 Familientzako tailerrak

02 Emanaldi dokumentalak

01 Arkitektura eta Altzairua (Metal Gehiago) jardunaldia

03 Jardunaldi profesionalak

02 Liburuen aurkezpenak

32 Bisita gidatuak Labe Garaian zehar

34 Hots-paisaiak

+80 jarduera

Jarduerak

TAC! Sestao 2026 proiektuen erakusketa

URR. 13 – AZA. 15
(Irteera: Metro Sestao)

URR. 21 – AZA. 6
(Musika Eskolako erakusketa-aretoa)

TAC! Sestao deialdian aurkeztutako proiektuen erakusketek edizio honetarako sortu diren proposamen arkitektonikoen panoramika zabala eskainiko dute.

Hautatuko ideiak eta jasotako lan-multzoaren hautaketa esangarria elkartuko dira erakusketan, eta balioa emango zaie hasten ari diren taldeek planteatutako ikuspegien, eskalen eta estrategien aniztasunari.

Metroaren irteera nagusian eta Musika Eskolako erakusketa-aretoan kokatuko dira, eta udalerriko eguneroko joan-etorrietan txertatuko dira arkitektura garaikidea herritarrei hurbilduz eta mugimenduko espazioa topatzeko eta hausnartzeko toki bihurtuz.

TAC! erakusketa Granadan

Jarduerak

Inaugurazio-jardunaldia

URR. 13
12:00etan

Erakundeen hasierako ekitaldiak irekiko du TAC! Sestao Festibala. Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioko, Sestaoko Udaleko, erakunde laguntzaileetako eta arkitektura, kultura eta hiri-eraldaketaren arloarekin lotutako toki-eragileetako ordezkariak bilduko dira.

TAC! Vigo Festibalaren inaugurazioa

Jarduerak

Bisita gidatua FERRUM pabiloian zehar

URR. 13
18:00etan

Ekintza hau zabalik egongo da jende ororentzat, festibala eta haren eremua aktibatzeko lehenengo keinu gisa. Proposamenak planteatzen du FERRUM pabiloia bisitatzea **Juan Mateo Coronarekin**, arkitektoa eta diseinuaren arduraduna.

Bisita itxia izatetik haratago, topaketa tresna bizi bat izango da, eta gonbita luzatuko da parte hartzeko, behatzeko eta Sestaoko biztanleak elkartzeko. Bisitan TAC! Festibalaren zuzendaria den **Javier Peña Ibañez** egongo da.

Ekitaldian, Sestaoko Udalak hilabete honetarako prestatu duen kultur egitarauaren xehetasunak emango zaizkio jendeari.

Egitarauak diziplina anitzeko 80 jardueratik gora ditu: ponentziak, bisita gidatuak, liburuen eta dokumentalen aurkezpena, ondare-jardunaldiak eta musika nahiz arteak zuzenean.

(informazio gehiago honako esteka hauetan: tacfestival.com eta www.sestao.eus)



Bisita gidatua FERRUM pabiloian zehar

URR. 13
17:00etan

TAC! bezalako festibalak hiri-laborategi bihurtzen dira, eta hiria esperimentazio-eremu bihurtzen da. Gozatzeko, aztertzeko eta ikasteko gune bat instalazioei, tailerrei eta topaketei esker. Horiek guztiek bizimodu berriak aktibatzen dituzte, eta gizarte-, ekologia- eta kultura-erronkei aurre egiten diete. Behin-behineko esku-hartzeez aparte, festibal hauek esperimentazio partekatua eta herritarren partaidetza sustatzen dute, eta plataforma kritiko bilakatzen dira gure hiri garaikideak birpentsatzeko.

Javier Peña Ibáñez arkitektoa, erakusketa-koordinatzailea, ikertzailea, irakaslea eta arkitektura, diseinu eta hiriaren gaietan aholkulari aditua da. Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan egin zituen bere ikasketak. 2015ean, Concéntrico sortu zuen, eta egun haren zuzendaria da, TAC! Festibalaren zuzendari artistikoa izateaz gain. Espazio publikoarekin eta hiri-berrikuntzarekin lotutako kultur proiektuak kudeatzen, koordinatzen eta hedatzen dihardu, eta diseinuarekin zerikusia duten bi urtez behingo jardunaldiak, hezkuntza-programak eta nazioarteko ekimenak koordinatzen ditu.

FERRUM

TAC! Sestao Festibalaren pabiloi irabazleak altzairuaren bizi-zikloari balioa ematen dio, eta siderurgiaren ekoizpeneko hondakinak kontakizun berri baten protagonista bihurtzen ditu paisaia garaikidearekin lotuta. Egitura arin, desmuntagarri eta berrerabilgarri baten bidez, proiektuak jarduera siderurgikoaren dirdira dakar gogora, eta helburu du esanahi berri bat esleitzea hiri-berroneratzearen, jabetza kolektiboaren eta ziklo materialen kontzientzia hartzen duen irudi gisa.

Juan Mateo Corona arkitektoa da Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan (MAGET) 2020az geroztik. Bere lanbide-jarduera @corma.archstudio sozietatean garatzen du; bertatik egituratzen du bere posizio arkitektoniko kritikoa testinguruarekin. Bere prestakuntzak barne du lankidetza-beka bat Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan eta gonbidatu gisa partaidetza Norman Foster Foundationeko «Imagining Futures» think tankean. Bere lana zenbait lehiaketatan aintzatetsi da, eta lehenengo saria lortu zuen babes publikoko 31 etxebizitzen proiektuarekin Carabanchelen eta zenbait sari Europan ekitaldiaren zenbait ediziotan.

Jarduerak

Arkitektura gaztearen topaketak

URR. 16 / URR. 30 /AZA. 13
17:00etan

Arkitektura gaztearen topaketak proiektuak aurkezteko eta arkitektura garaikidearen erronka nagusiei buruz eztabaidatzeko eremuak dira.

Belaunaldi berrien lana ikusgai utzi nahi da, eta, horretarako, konbinatzen dira, batetik, proposamenen erakusketa eta, bestetik, profesionalen, kultura-eragileen eta herritarren arteko elkarrizketa irekiak. Hiru jardunalditan antolatu dira ostiral arratsaldetan –urriak 16 eta 30 eta azaroak 13–, eta saio bakoitza festibalaren ardatz bakoitzaren inguruan egituratzen da.

Lehenengoan behin-behineko arkitektura aztertuko da esperimentazio-tresna gisa trebeziaz espazio publikoa aktibatzeko. Azpimarratuko da hiri-dinamika eta -erabilera berriak sortzeko gaitasuna.

Bigarrenak industria-ondarearen biziberritzeari erreparatuko dio begirada garaikide batetik abiatuta. Balioa emango zaie diseinutik eta berrikuntzatik espazio horiek berrinterpretatzen dituzten estrategiei.

Hirugarrenak espazio publikoa nola berreskuratu izango du hizpide hiria biziberritzeko eta eguneroko bizitza aktibatzeko. Zenbait adibide landuko dira diseinuaren eta behin-behinekotasunaren ikuspegitik eta herritarrak nola nahasten diren kontuan hartuta.

Blasón. Burr Studio.@MaruSerrano

Arkitektura gaztearen topaketak

1. saioa.
Behin-behineko arkitektura

URR. 16
17:00etan

ETXENOI PABILOIA
Hirietan, obra-hondakinez eta botatzeko altzariez betetako edukiontziek erakusten dute barrualdeak berritzen direla moda estetikoek eta merkatuko estrategiek bultzatuta behar funtzionalek bultzatuta baino gehiago. Bultzada bera ageri da espazio eta eraikin publikoetan. Horietan, esku-hartze askok lehentasuna ematen diote irudiari irisgarritasunaren, erosotasunaren eta etorkizuneko moldagarritasunaren gainean. Pabiloiak kritikoki berrinterpretatzen du utopia hori; dimentsio abstraktutik edo idealizatutik urruntzen du aukera ukigai eta hurbil bihurtzeko. Aurrekoaren harira, abiapuntu gisa egunerokoari begiratzea proposatzen du etorkizun arkitektonikoa birpentsatzeko.

AMA (architectural office) Euskadiko arkitektura-estudio bat da, eta **Jaime Gutiérrez Armendarizek eta Itziar Molinero Mirandak** sortu zuten. Ibilbideari Bartzelonan ekin ostean, 2023an, Euskadira itzuli ziren, eta berezko jarduna definitu zuten. AMA, amaren abizenen akronimoa, “ama” da euskaraz.

Zeharkako eta diziplina anitzeko ikuspegia dute, eta etxeko eskalari, erreferentzia arketipikoei eta soluzio denboragabeei erantzuten die. Testuak, esku-hartze suntsikorrak, artelanak eta obrak garatzen dituzte, sarritan, arkitektoen eta artisten laguntzaz.



@MikelBlasco

Arkitektura gaztearen topaketak

1. saioa.
Behin-behineko arkitektura

URR. 16
17:00etan

¡QUE FAENA(R)!
Proposamenak bi «itsasoak» elkartzen ditu erraz antzeman daitezkeen bi elementuz eraikitako pabiloiaren bidez: Galiziako txanela, egitura nagusi gisa, eta arrantza tradizionalaren sistema bat estalkian. Azkenekoak apeu eta aterpe gisa funtzionatzen du. ¡Que faena(r)! arkitekturaren eta aparatuen, tradizioaren eta bitartekaritzaren arteko elkarrizketa arakatzen du. Bertakoa aztertzen du lurralde eraldatuari aplikatuta, eta aurrez aurre jartzen du jardunbide arkitektoniko berriekin, baldin eta gai badira topografiaren, klimaren, gizartearen, ekonomiaren eta ekoizpenaren baldintzatzaileei erantzuteko. Pabiloiak proposatzen du gizarte garaikidea naturaren eta makinaren arteko elkarrekintzatik abiatuta ulertzea penintsula-lurralde eraldatu batean.

Oscar Cruz arkitektoa da Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoan (2019), arkitekto teknikoa Madrilgo Arkitektura Teknikoko Unibertsitate Eskolan - MATUE (2013), masterra du Proiektu Arkitektoniko Aurreratuetan MPAA14 (2025) eta doktoregaia da Proiektu Tekniko Aurreratuetan. Cruz.atelierren sortzailea da, hain zuzen ere, diseinu arkitektonikoa, ikerketa eta dibulgazioa elkar txertatzen dituen jardunbidea, tradizio materiala, paisaia eta oroimen kolektiboa arakatuz lente garaikide baten bidez.

Arkitektura gaztearen topaketak

1. saioa.
Behin-behineko arkitektura

URR. 16
17:00etan

AZALA
Azal batek estaltzen duena babesten du. Meatzarientzat, oihal urdinak eta laranjak beren gorputzak bereizten zituen ikatzez betetako sakoneretatik, igoz eta jaitsiz higatu eta emakumeek konpondu arte. Arkitektura ere azala da: interfazea eta zaintzailea gizakiaren eta bere ingurunearen artean, gorputzetik paisaiaraino.

Pabiloia gai periferikoak mihiztatuta antolatu da. Itxuraz, ez dute loturarik erauzketa-prozesuarekin, baina haren inpaktua islatzen dute: oihala pertsonekin jartzen da harremanetan, hondarra sistema hidrografikoekin eta zura basoekin.

Hala, arkitektura, azal gisa ulertuta, lurralde-harremanak gauzatzen ditu.

Furii Studion daude **Diego Martín Sánchez** eta **Noemí Gómez Lobo**, Madrilgo Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko arkitektoak eta Tokiko Institutu Teknologikoan doktoreak Japoniako Hezkuntza, Kultura, Kirol, Zientzia eta Teknologia Ministerioko Monbukagakusho bekari esker. Yoshiharu Tsukamotoko laborategitik, Atelier Bow-Wowekin lankidetzan jardun dute zenbait proiektutan. Furiik eskala desberdinak lantzen ditu: pabiloi suntsikorra, etxebizitza edo paisaia. Haietan, mugak jardunbidearen eta ikerketaren, arkitekturaren eta hirigintzaren artekok mugak nahasten ditu.

@MarcosMorilla

Arkitektura gaztearen topaketak

1. saioa.
Behin-behineko arkitektura

URR. 16
17:00etan

ARGI
Argi pabiloia Mugak/2023 Bienalerako EHU/UPVko Arkitektura Eskolak diseinatutako instalazio suntsikorra da. Pabiloia irakaskuntza-gunearen hedapen bat da ibiltaria izateko. Egitura zur trinkoko pieza industrializatuen modulu-sistema bat da, eta hala eratzen da barrutia. Ehun-mintz puzgarriaren bidez eratuta dago estalkia, eta zeharrargiko "burbuila" gisa funtzionatzen du. Barrutik argiztatzen da ilunabarrean, eremu argitsu ibiltaria sortuz. Bere egonaldian, Argik ikasleen proiektuak hartu zituen, bai eta gaitzeko master-ikastorduak, hitzaldiak eta elkarrizketak ere, guztiak arkitektura eta hezkuntzari buruz.

Euskal Herriko (EHU/UPV) Arkitekturako Goi Eskolak Argi bultzatu zuen ekimen akademiko gisa Mugak/ Euskadiko Arkitekturako Nazioarteko Bienalaren esparruan. Proiektua **Jon Begiristain Mitxelena, Josemi Rico Martínez eta Iñigo García Odiaga irakasleek zuzendu zuten, eta Mikel Oses Lekube, Martin Lasa Bengoa, Asier Quintana Garate eta Jon Otxoantezana Fernández** ikasleek parte hartu zuten. Irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzak proposamenaren izaera pedagogikoa, kolektiboa eta esperimentala adierazten du. Arkitekturako prestakuntza espazio publikora helarazteko eta unibertsitatearen, arkitekturaren eta herritarren arteko topaketa sustatzeko pentsatu zen.

@MikelBlasco

Arkitektura gaztearen topaketak

1. saioa.
Behin-behineko arkitektura

URR. 16
17:00etan

ARKITEKTURA SUNTSIKORRA PEDAGOGIA GISA
Diseinatzen ikasteak zenbait gaitasun modu eutsian trebatzea dakar proiektu bakoitzari aurre egiteko: irudikatzea, ikertzea, formalizatzea eta kontatzea. IED Kunsthalek proposatzen du diseinuko adimen-dimentsio honetara hurbiltzea: gauzatze erreala. Prestakuntzaren zenbait unetan, ikasleek beren lanak eraiki behar dituzte, eta eskala, materialtasuna, beren gorputzekin eta ingurunearekin erlazioa esperimentatzen dituzte. Ekintzen, mihiztatzeen edo artefaktuen modupean, esku-hartze suntsikor hauei esker, beren hausnarketak heda ditzakete eta jakintzagaia ezagutzeko zuzenagoak diren moduetara irekitzen dira.

Proposamenak **Bilboko IED KUNSTHALeko** Barne Diseinuaren graduko 4. mailako ikasleek garatu dituzte Diego Sologuren irakaslearen laguntzaz. **Diego Sologuren** arkitektoa eta ikertzailea da, eta IED Kunsthaleko irakasle-kidegoan dago Barne Diseinuaren graduan 2023. urteaz geroztik. Lehenengotik laugarren mailara arte jakintzagaiak irakasten ditu: Oinarrizko Prestakuntza, Proiektuak, Arkitektura Suntsikorra eta Diseinu Bioklimatikoa. Aldi berean, IBLaren tutorea eta epaimahaiko kidea da. Nazioarteko bere ibilbide pertsonalari esker –izen handiko profesionalekin lan egin du, hala nola Francis Kéré– eta bere lanaren ikuspegi transdiziplinarra dela bide, ikuspegi kritikoak eta dinamikoak ematen ditu, bai eta ikasketa-prozesuarekiko modu alternatiboak ere.



Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

ELEMENTS FOR INDUSTRIAL RECOVERY (E.I.R.) Madrilgo proiektu-esparru bat da industria-ondarea dokumentatu, katalogatu eta babesteko. Proiektuak tipologia hedatua eta, aldi berean, kaltebera du abiapuntu: industria-pabiloiak eta -lokalak bizitegi-ehunetan txertatuta, bereziki, beheko solairuetan eta partzela-hondoetan. Halako arkitektura-ondarea babesteko irizpide trinkorik izan ezean, proiektuak proposatzen du hurbilketa integratu bat egitea, eta, xede horrez, konbinatzen ditu hiri-irakurketa, araudi-analisia eta biziberritze-estrategiak eske garaikideetara egokituta dauden erabileren bidez, balio-bizitza luzatzeko eta eraistera daramaten dinamikak murriztuta.

BURR Studioren buru dira **Elena Fuertes, Ramón Martínez, Álvaro Molins eta Jorge Sobejano.**

URR. 30
17:00etan

Bere jardunbidea “BURR” termino ingelesean oinarritzen da. Izan ere, materiala aldatzeko prozesuetan sortutako inperfekzioak eta hondakinak definitzen ditu. Bere interesa soberakintzat edo kanon estetiko edo praktikoez kanpokotzat jotako egoeratan funtsatzen da. Estudioak aintzatespenak jaso ditu, besteak beste, Arkitektura eta Hirigintzako Espainiako Bienalaren Saria (BEAU XVI), Arquia Innova 2024 eta Next 30 Design Awards 2025. Gainera, finalistak izan dira honako sari hauetan: Arkitekturaren Etxea, Brick Awards, Erich Mendelsohn Awards, FAD, COAM eta FRAME, besteak beste. Solaskide izan dira erakunde hauetan: GSAPP, RISD, Université Laval, HEAD Genève, RIXC eta CA2M. Bere lana argitaratu da Domus, Detail, Frame, Arquitectura Viva, Dwell eta El País hedabideetan. BURRek, halaber, Espacio Gaviota zuzentzen du, Madrilgo erakusketa-eremu bat kultur ekimen independenteetarako.

@LuisDíazDíaz

Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

URR. 30
17:00etan

BIZITZA BERRIAK GASOMETRO ETA TABAKO-FABRIKETARAKO
Aviléseko gasometroa eta tabako-fabrika birgaitzea dira bi esku-hartze industria-eraikinak berreskuratu eta hiri- eta kultura-bizitza berria itzultzeko. Bi proiektuek eraikuntzen oroimen materialari eta espazialari eutsi diote, jatorrizko izaera errespetatzen duten erabilera bateragarri berriak sartuz.

Estrategiari esker, konbinatu dira zaharberritzea, egokitzapen funtzionala eta irisgarritasun-, efizientzia- eta bizigarritasun-baldintzen hobekuntza. Egungo arkitektura ordezkatzea baino gehiago, esku-hartzeek balioa ematen diete egiturei, eskalei eta erabilera-aztarnei, eta gune garaikide bihurtzen dituzte jarduera publikoak eta kulturaren nahiz ekoizpenaren arlokoak hartzeko.

FADG Estudio arkitektura-bulego bat da. 2018an sortu zuten Santa Cruz Tenerifekoan **Fernando Arocha Ferreirok** eta **Deiene González Uriartek**. Ondare eraikia birgaitzen, zaharberritzen eta aktibatzen dihardute ikuspegi garaikidetik. Hala, esku-hartze bakoitzaren prozesuan ikertu, aztertu eta behar kolektibo berrietara moldatzen da.

Beren lanbide-esperientzia Tenerife, Madril eta Londres artean banatu da. Estudioak inpaktu garrantzitsuko proiektu eta lehiaketa publikoak garatu ditu, besteak beste, Cartako jauregia, San Andreseko gaztelua et Gasteizko Tabako eta Zinema Fabrika. 2025ean, CSCAEren Arkitektura saria jaso zuen Birgaitzearen kategorian.



Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

URR. 30
17:00etan

INDUSTRIA-ONDAREA BIZIBERRITZEKO PLAN ZUZENTZAILEA
Els Rajolars d'Olivako Plan Zuzentzaileak planteatzen du adreiluzko fabriken industria-kokagune zaharra oso-osorik berroneratzea, ondare- eta nortasun-balio handikoa baita. Proposamenean hiru ildo-estrategiko antolatzen dira: ekoizpen- eta gizarte-ingurunea erabilera berriekin bizitzeko, prestatzeko, ekonomiarako eta zuzkidurarako; eraikuntza-ingurune egituratua eta antzeman daitekeena, aurretik zeuden industriak integratzen dituena; eta naturagune integratu eta erresilientea. Kultur paisaia berreskuratzearekin batera, kalitatezko espazio publikoak, mugikortasun jasangarria, birnaturalizaioa eta uholdeen eta beste natur arrisku batzuen aurkako neurriak sortzen dira.

Plana finalista gisa hautatu zen New European Bauhaus 2024 sarietan, eta Espainiako Arkitektoen Elkargoko Goi Kontseiluaren Espainiako Hirigintza saria lortu du 2024an.

Terrario Arquitectura 2018an sortutako arkitektura- eta hirigintza-estudio bat da, eta **Luis Bernardo** eta **Ignacio Burgosek** sortu zuten, Madrilgo Arkitektura Eskolako (MAGET) arkitektoek.

Bere lana zorroztasun kontzeptualean eta obren testuingurua, gizartea, materiala eta ingurumena ulertzean oinarritzen da eskala-tarte zabalean: hiritik eta lurraldetik etxebizitza txikienera. Estudioa zenbait lehiaketetan aintzatetsi da, hala nola Europan edo EVHAren lehiaketa alokairuko babes ofizialeko 70 etxebizitza eskuragarri eraikitzeko Elxen. 2. saria lortu zuten.

Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

URR. 30
17:00etan

ULYSES BEGAN HIS ODYSSEY (EUROPAN 17, EIBAR)

Proiektuak proposatzen du “bigarren bizitza” ematea AIBE industria-eraikinari, kalitatezko etxebizitza bihurtuz auzoko eta beren biztanleen ondare gisa nortasunari eta oroimenari uko egin gabe. Esku-hartzeak eraikina bera gainditzen du, eta eskala desberdinetan jarduten du –lurraldea, hiria eta arkitektura– ingurunea eraberritzeko eta harreman berria ezartzeko mendiaren, arkitekturaren eta plazaren artean. Espazio publikoen eta ibilbide irisgarrien sistema batek Txonta auzoa konektatzen du Eibarko goiko kotekin, kalea, plaza, terrazak eta natura elkartuz. Eraldaketak ez du aldatu AIBE eraikinaren kanpoko bolumena, eta izaerari eutsi dio Eibarko industria-ondarearen osagai gisa.

Barruan zuzkidura-etxebizitzak, espazio komunitarioak eta ekipamenduak daude. Hala, publikoak lehendik zegoen egitura zeharkatu eta aktibatu du. Etxebizitzek zona argitsuak eta aireztapen gurutzatua dutenak okupatzen dituzte, eta programa osatzeko, bolumen berria egin da ondoan.

Miguel Ángel Díaz Gonzálezek, Ignacio Hornillos Cárdenasek, Eduardo Dipré Mazzak, Agustín Berzerok eta Agustín Lozadak osatzen dute arkitektoen diziplina anitzeko taldea, Espainiatik eta Argentinatik iritsita. Beren lanbide-ibilbideak arkitekturaren arloan aintzatetsi dira zenbait testuingurutan garatutako lehiaketa, sari eta proiektuen bidez.

Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

URR. 30
17:00etan

ARURCOHE MASTERRA

Mundus en Architectural and Urban Contemporary Heritage (ARURCOHE) Erasmuseko Unibertsitate Masterra programa ofiziala da, eta Europar Batasunak finantzatzen du, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU/UPV) koordinatuta, Kaunas University of Technology (Lituania) eta Politecnico di Torino (Italia) zentroekin batera. ARURCOHE goi-mailako profesionalak eta ikertzaileak trebatzeko diseinatuta dago, hiri-ondarea eta XX. mendean eraikitakoa babestu, kontserbatu eta berrerabiltzeko espezializatuta.

Programaren helburua da nazioarteko ikasleei diziplina askoko trebetasunak eskuratzea proiektu konplexuei aurre egiteko ondare garaikidearen eremuan, ikuspegi historikoak, sozioekonomikoak eta jasangarritasunaren arlokoak txertatuz.

Lauren Etxepareren zuzendaritzapean, **UPV/EHUko Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko** irakasleen taldeak 15 espezialista baino gehiago biltzen ditu arkitektura- eta hiri-ondare garaikidearen, kontserbazioaren, birgaitzearen eta ikerketaren gaian. Besteak beste, honako hauek dira: **Ezequiel Collantes, Izaskun Aseguinolaza eta Iñigo García Odiaga; era berean, irakasle gonbidatuak dituzte, hala nola Maddi Manterola eta Francisca Gual.**



Arkitektura gaztearen topaketak

2. saioa.
Industria-eraikinak biziberritzea

URR. 30
17:00etan

EIN. PAISAIA BIZITZEA

Proiektu hau pertsonen eta lurraldearen konexio ezari buruzko ikerketaren ondorioz sortu zen, Lekeitio, Haizea Depardieuren sorterria, abiapuntutzat hartuta. Esku-hartzea industria osteko gune batean kokatzen da. Gaur egun ez da erabiltzen, baina aurreko erabileren aztarnak daude, eta pixkana natura tokia hartzen joan da. Ikusiz, egun lurraldeari buruzko kontzientziarik ez dagoela definitzen du.

Proiektuak planteatzen du tokiarekin harreman kontzientea berreskuratzea, bizitzea ezagutza, errespetu, partaidetza eta ingurunearekin, historiarekin eta jakinduriarekin lotutako gune izanda. Hausnarketa horretan lehenengo kolonizazio irisgarria eta irekia planteatzen da. Modulu-sistema bat garatu da eranskin tekniko gisa estrategia hau gauzatu eta ahalbidetzeko.

Haizea Depardieu diseinatzailea da, eta Bilboko IED Kunsthalen prestatu da Barne Diseinuan (2022–2026). 2025ean, IKEAk eta Guggenheim Bilbao Museoak bultzatutako Home for Our Planet lehiaketako irabazle bat izan zen.

Haizearentzat diseinatzea nortasuna eta testuingurua ulertzea da kontziente esku hartzeko, pertsonen eta lurraldearen arteko harreman berriak sor daitezen. Interes berezia du toki bakoitzeko testuingurutik eta nortasunetik abiatuta lan egiteko. Bere ustez, esku-hartzea ez da beti oso-osorik eraldatzea, baizik eta dagoeneko bertan dagoena azaltzea, konektatzea, berreskuratzea eta balioa ematea.



Arkitektura gaztearen topaketak

3. saioa
Espazio publikoak aktibatzea

AZA. 13
17:00etan

JOLASTEA, BIZITZEA ETA ERABAKITZEA. IZATEZ KALEZALEA

Parc Sant Jordi eremuak (Reus) labirinto-joko bat du Arjub Studiok (Anna Castellà eta Alberto Espinosa, 2022) jolas-gune inklusibo eta irisgarri gisa diseinatuta, oztopo fisikorik eta ikusmen-eragozpenik gabe, adin eta gaitasun guztietarako. 1,5 m-ko hiru dimentsioko ardatzen bilbe modular batekin eraiki da aisialdia sustatzeko, kaotikoa haurrentzat eta kontrolagarria helduentzat. Bertan fabrikatu da karbonoaren aztarna murrizteko. Bestalde, Arjuben altzari parte-hartzaileak gizarte-etxebizitzetarako eta espazio publikoetarako bere barne- eta hiri-diseinuko ildo bilakatu eta malguan kokatzen dira. Izan ere, herritarrek parte hartzen dute altzariak konfiguratzen eta erabiltzen, hiri-arkitektura irekia, inklusiboa eta merkea islatuz, gizarte- eta partaidetza-osagai sendoarekin.

Arjub Studio arkitekturako eta hirigintzako estudio gaztea da. 2017an sortu zuten **Anna Castellàk eta Freddy Leónek**, eta egoitza Tarragonan ipini zuten. Hainbat eskalatan lan egiten du: diseinua, arkitektura eta espazio publikoa. Bere ikuspuntuaren abiapuntua da hirien eraldaketa jasangarria, inklusioa eta herritarren partaidetza. Bere lanak honako sari hauek eskuratu ditu adibide modura: Alejandro de la Sota (2023) eta AJAC XIII Sariak Hirigintza eta Paisaia eta Prozesu Parte-hartzaileak kategorietan, Parc Sant Jordiko (Reus) Laberint eta Infants Ciutadans programarekin, besteak beste. Bere lanek nahasten dituzte gizarte-berrikuntza, kostu txikia eta bertan fabrikatzea, eta zenbait aldizkaritan argitaratu dira, hala nola 2G, bai eta I Biennal d'Arquitectura Joven de Catalunya gisako eremuetan erakutsi ere.

Arkitektura gaztearen topaketak

3. saioa
Espazio publikoak aktibatzea

AZA. 13
17:00etan

ZUBITEGI PARKEA: UNA INFRAESTRUCTURA VIVA

Zubitegi Kirol parkeak araztegi zahar baten lur narriatua eraldatu du Mallabian (Bizkaia) “azpiegitura bizi” malgu eta ireki bihurtzeko. Cedric Priceren teoriatan funtsatuta, proiektuak alde batera uzten ditu inguratzaile itxiak bideen, ganga-estalkiz osatutako altzairuzko pergolen eta erabilera askoko guneen sare irisgarria sortzeko. Hala, eremu horretan tokia dute kirolak, jolasak eta aisiak. Esku-hartzeak jatorrizko ekosistema birsortzen du, eraispenak minimizatzen dira eta bertako materialak berrerabiltzen ditu. Arrapalen eta pasabideen bitartez, Mallabiako hirigunea Ermuarekin konektatzen du.

2024. urtean amaitu zen, eta parkeak “barrualderik gabeko eraikin ireki” gisa funtzionatzen du, etorkizunean izan ditzakeen erabileretarako moldagarria, hala nola skatepark edo bike park-a.

BEAR Architects arkitektura-estudioa 2017an sortu zuten Bilbon **Ane Arcek** (1989) eta **Iñigo Berasateguik** (1988). Biak Nafarroako Unibertsitatean trebatu ziren, eta egun bertako irakasleak dira.

Gaur egun, taldea sei pertsonak osatzen dute, eta sariak eskuratu dituzte, hala nola Peña Ganchegui 2019 Saria Euskadiko Arkitekto Gazte Onenei eta Egurtek 2020 Saria. Donostiako Bienalean, Euskadiko Arkitektura Institutuan eta Hyèreseko Villa Noaillesen erakutsi dute bere lana. 2023an, Rabe inauguratu zuten, lan-eremu berria Uribarri auzoan (Bilbo).

@LuisDíazDíaz

Arkitektura gaztearen topaketak

3. saioa
Espazio publikoak aktibatzea

AZA. 13
17:00etan

BEHEKO SOLAIRU PARTEKATUA

Logroñoko espazio publikoa eraldatzeko proposamena dagoenaren gainean zenbait esku-hartzeri esker. Proiektuak kalea kooperazio-espazio gisa ulertzen du, hau da, etxeko bizitza eta bizitza publikoa merkataritza-lokal hutsetara zabaltzen da, eta egutegi bat proposatzen du hamar urtera eskalagarria bost fase mailakatutan, herritarren eta zenbait eragileren partaidetzarekin. Lehenengo fasean, azpiegitura kolektiboak eta ekitaldiak daude erkidegoa aktibatzeko, bigarrenean, jarduketa suntsikorrak sartzen dira, lokalak berrerabiltzen dira eta birnaturalizazioari ekiten zaio, hirugarrenean, epe luzeko esku-hartzeak garatzen dira birnaturalizazio estentsiboa eta hiri-erritu berriak barne; laugarrenean, eraldaketa dator shapeshifting eta espazioen hirugarren bizitzak tarteko; eta bosgarrenean, lorpenak eta erronkak berriz ebaluatzen dira.

Laura Salazarrek, **Pablo Sequerok** eta **Juan Medinak salazarsequeromedina** elkarlaneko estudioa sortu zuten 2020an, eta proiektuak jorratu dituzte Perun, Espainian eta Estatu Batuetan. Bere jardunbidea arkitektura zibikoan oinarritzen da, eta solasean dihardu ingurune-testuinguruarekin eta erkidegoekin, material berrerabilietara eta azpiegitura irekietara jota. Laura Salazar irakaslea da Pratt Instituten eta MArch bat du Princetonen. Pablo Sequero arkitektoak lizentzia lortu zuen MAGETan, eta irakasle bisitaria da Syracuse Universityn. Juan Medina irakaslea da Tulane Universityn eta doktoregaia MAGETan. 2025ean, Architectural League Prize jaso zuten New Yorken, eta aintzatetsi zaie Bienal Iberoamerikarrean eta MAEOaren sarietan.

Arkitektura gaztearen topaketak

3. saioa
Espazio publikoak aktibatzea

AZA. 13
17:00etan

ERRAMINTA ESKUAN, ERKIDEGOA OBRAN: HUELVAKO PARKEA ERALDATU ZUEN TOPAKETA

“Herramienta en Mano” topaketak arkitektura parte-hartzailearen urteko topaguneak dira. 5–8 egunez taldean eraikitzen da ekipamendu publiko bat, eta hitzaldi, tailer eta bisitekin osatzen da. 2025eko azken edizioa 8. EAHM izan zen, eta La Palma del Condadon (Huelva) egin zen irailaren 10etik 15era. Bertan altxatu zen anfiteatro estalia Manuel Díaz parkean. Egitura arina izan zen, eta materialen % 70 baino gehiago berreskuratuak ziren (upel-oholak, erabilerarik ez zuten farolak, bertako zura). Espainia, Portugal, Txile, Frantzia, Mexiko, Estatu Batu eta Belgikatik etorritako 30 pertsonak eta herritarrek parte hartu zuten diseinu modular eta jasangarri batean erkidegoa aktibatzeko.

Opción 18 arkitektoen talde gazte bat da, eta arkitektura tresna gisa ikusten du gizartea, kultura eta ingurumena eraldatzeko. “Herramienta en Mano” topaketak duela zortzi urte antolatzen dira. Urtero elkartzen dira 5–8 egunez taldean eraikitzeko ekipamendu publiko bat eta lurraldea aktibatzeko. Horrez gain, hitzaldi, tailer eta bisitekin osatzen da. Bere jardunbideak honako oinarri hauek ditu: diseinu modularra eta prefabrikatua, bertako materialak berrerabiltzea, jasangarritasuna eta gobernantza irekia. Hala, arkitektura parte-hartzailea, inklusiboa eta gertukoa sustatzen da profesionalak eta herritarrak nahasi nahian.



Arkitektura gaztearen topaketak

3. saioa
Espazio publikoak aktibatzea

AZA. 13
17:00etan

EXPRESIONES MÍNIMAS

Berehalakotasunak eta erritmo frenetikoak arrastatzen gaituzten mundu honetan, kontenplazioa ia ahaztu egin da. Jokabide automata batean murgilduta, gure hiri-ingurunetik kontziente mugitzeari utzi diogu. “Expresiones mínimas” ohitura hori hausteko sortu da; hala, “ez-toki” horietan energia-katalizatzaile txikien bidez esku hartzen da. Egunerokotasuna goratzen dute, eta inguruneen pertzepzioa eta esperientzia eraldatzen dituzte. Proiektu honek gonbita luzatzen du birpentsatzeko nola gabiltzan elkarrekintzan inguratzen gaituen testuinguruarekin eta baloratzeko benetako emozioen inpaktua gure bizi-kalitatean. Zure esku dago ohikoena aparteko bihurtzea.

Elena Barrena Barne Diseinuan lizentziaduna da Bilboko IED Kunsthalen. Diplomaduna Barne Estilismoaren ADn Vogue Collegen (2025). Ekoizpenaren eta sare sozialen estilista Architectural Digest España aldizkarian. Diseinatzaile honek prestakuntza sendoa du espazio funtzionalak eta estetikoak sortzeko orduan indibiduoaren eta ingurunearen arteko konexioa sustatze aldera. Azkar moldatzen da, taldean lankidetzan jarduteko gaitasuna du eta komunikazio eraginkorrerako trebea da. Bere ikuspegiak konbinatzen ditu sormena, dedikazioa eta jakinmina, eta arazoak modu berritzailean ebazten ditu.

Jarduerak

RIALIAKO 20. URTEURRENA

URR. 17
17:00etan

Rialia Museoa erreferentziazko kultur ekipamendua da, eta Portugaleteko eta itsasadarreko industria-oroimenean dago espezializatuta. Bide horretatik, lurraldeko kulturari, arteari eta historiari irekitzen zaio.

Jarduera museoaren urteurrena ospatzeko agenda berezian sartzen da. Hala, ate zabaleko jardunaldiak eta kultura- eta eszena-proposamenak antolatuko dira eraikinaren inguruan. TAC! Festibalaren esparruan, proposamenak baterako programa planteatzen du Rialia Museoa eta Sestaoko Labe Garaia konektatuta, eta TAC! pabiloia bisitatzen du, industria-ondarearen, arkitekturaren eta espazio publikoaren arteko ibilbidea definituz.

ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIA

URR. 18
11:00etan

Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker, Sestaoko Udaleko Kultura Arloak Ondarearen Europako Jardunaldia antolatuko du TAC! Festibalaren esparruan. Sestao, Labe Garaiaren kokagunea aprobetxatuz topaketaren eremu nagusi gisa.

Industria-ondarea babestearekin, hedatzearekin eta berrinterpretatzearekin lotutako adituak, ikertzaileak eta eragileak elkartuko dira jardunaldian. Jardunaldiaren barruan, Labe Garaiaren bisita gidatua egingo da. Ibilbidean **Felipe Garduñok** lagunduko du.

Izen-emateak: kulturabulego@sestao.eus edo 94 472 90 28 telefono-zenbakira deituta

Jarduerak

“EL HORNO ALTO Nº1 DE ALTOS HORNOS DE VIZCAYA” ARGITALPENA AURKEZTEA

URR. 22
18:00etan

Labe Garaiari buruzko argitalpenaren aurkezpena Sestaoko ondare-mugarri hau zabaltzeko eta balioa emateko ekitalditzat jotzen da.

TAC! Festibalaren esparruan, jarduerari esker, argitalpenaren edukiak partekatuko dira, eta Labe garaiaren historian, esanahian eta interpretazio garaikidea egiteko aukeretan sakonduko da, lurraldeko industria-oroimenaren funtsezko elementua baita.

Aurkezpenean **José Eugenio Villar** eta **Fernando Arístegui** egongo dira. Liburua idatzi dute, eta Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarteko (IOHLEE) kideak dira. Gainera, **Iker Basterretxea**, Arcelor-Mittaleko ordezkaria, eta Sestaoko Udaleko Kultura, Ekonomia Sustapen eta Enpleguko zinegotzia den **Carlos García de Andoinek**.

LABE GARAIEN NAZIOARTEKO TOPAKETA

URR. 23
10:00etan

Labe Garaien Nazioarteko Topaketa truke-jardunaldi gisa planteatzen da nazioarteko esperientziak eta jardunbide egokiak ezagutzeko industria-ondarea berreskuratu eta balioa ematearen gaian. Erreferentziazko kasuen bidez, saioari esker, Labe Garai zaharren kontserbazio-, berrerabiltze- eta aktibazio-estrategiak partekatuko dira.

Saio honetan nazioarteko erreferentziak aurkeztuko dira eta izen handiko nazioarteko pertsonek parte hartuko dute: Saguntoko 2 zenbakiko Labe Garaia (Espainia), Ruda Śląskako Huta Pokój (Polonia), Le Fonds Belval (Luxenburgo) eta Henrichshütte (Alemania). Ondarea berreskuratzearen ereduak dira, eta industria-konplexu zaharrak kontserbatzeko, egokitzeko eta kulturaren ikuspegitik proiektatzeko modu desberdinen adierazleak dira.

Sestaoko Labe Garaiaren testuinguruan, topaketak esanahi berezia du, kokagune hau abiapuntutzat jotzen baita industria-ondarearen etorkizunari buruzko hausnarketa zabalagoa egiteko.

Topaketak Labe Garaiaren bisita gidatua egingo da.

Jarduerak

Sestaoko webgunean argitaratutako argazki-agiritegia. Egilea: Fidel Raso

DOKUMENTALEN EMANALDIA

URR. 23
18:00etan

Zinema tresnatzat jotzen da ondare eraikia eta immateriala aktibatzeko irudien, lekukotzen eta kontakizun partekatuen bidez.

”El Crisol: Historias de hierro, memoria y transformación” **ElektrARTek** ekoitzitako dokumental txikia da. Bilbo Handiko ezkerraldeko burdinaren industriarekin lotutako oroimen kolektiboa berreskuratzen du. Izan ere, lurralde horren nortasuna historikoki labe-garaien lanak eta jarduera siderurgikoak gidatu dute. Irudi dokumentala eta industria-ondarearen indar sinbolikoa batzen dituen ikus-entzunezkoaren erregistroaren bidez, lanak hitza eta aurpegia jartzen dio oroimen partekatu horri, eta korapiloak estutzen ditu belaunaldien artean eta industria-iraganaren eta lurraldeko kultura-narrazio berrien artean.

Dokumentala ofizialki hautatu zen Berlín Indie Film Festivalean eta INCUNAn emateko, eta ohorezko aipamena izan zuen Mannheim Arts and Film Festivalen.

Emanaldiaren ondoren, elkarrizketa-mahaia antolatuko da, eta prozesuarekin eta lurraldearekin lotutako ahotsak entzungo dira. Hausnarketa partekaturako gune bat irekiko da oroimenaren kultur balioaren harira.

Jarduerak

DOKUMENTALEN EMANALDIA

URR. 29
18:00etan

LAN Langile Gaiaren Zinemaldiaren helburua da balioa ematea langileei jardunbide artistiko garaikideetan oinarritutako ikus-entzunezkoen ekoizpenen bidez.

Zinemaldiak ikus-entzunezkoen eta kulturaren formatuak sortu, haien inguruan hausnartu, hezi eta erakusten ditu, baldin eta lanaren errealitatea, fabrika eta haien inguruan sortzen diren ekonomiaren sektoreak badituzte hizpide, erkidego, asoziazionismo, adeitasun, zaintza, borroka eta matxinadari balioa ematen dieten elementuekin batera.

Saio honetan parte hartuko dute **Itxaso Díaz Cabrerak** (zinemagilea, dokumentalista eta ikus-entzunezkoaren antolatzailea, Arte Ederretan lizentziaduna eta Arte eta Teknologian doktoregaia, kultura-kudeaketan eta 2017az geroztik LAN zuzentzen ibilbidea duena) eta **Camilo Torres Zorrillak** (artista, ikertzailea eta UPV/EHUn doktoregaia). Azkenekoa bere lanarekin arte, lurralde, testuinguru eta historia partekatuen arteko harremanetan murgiltzen da, eta TXT-Lab idazketa-laborategiko kidea da.



LAN Zinemaldiaren kartela

Jarduerak

TAILERRAK FAMILIAN (DETALLERES)

URR. 24, 31
12:00etan

Tailerrak familian **Detalleresek** antolatzen ditu, eta espazio parte-hartzaile bat proposatzen du haurrentzat eta helduentzat, jolasten eta pedagogiaz, arkitektura eta ondarearen aktibazioa arakatzeko.

Jarduerak tailerraren formatuan garatuko dira, jolasa eta sormena konbinatuz. Lehenengo tailerrean, industria-ondarean zehar ibilaldia egingo, da eta bigarrenean, oroimena berreskuratzearen garrantziari balioa emango zaio. Gainera, gaiekin, espazioarekin eta jarduerekin lotutako liburuak erakutsiko dira.

Banako lanetik lan kolektiboari ikasitakoaren ekarpena egingo zaio, eta ondarea birgaitu eta biziberritzearen garrantziari buruz hausnartuko da modu dibertigarri eta eraginkorrean.

Tailer irekia edukiera bete arte (20 pertsona)

Detalleres tailerra Bilbon

Jarduerak

TAILERRAK FAMILIAN (MAUSHAUS)

AZA. 7
12:00etan

Tailerrak familian **Maushausek** antolatzen ditu eta arkitekturako, pedagogiako eta arte plastikoetako profesionalek zuzentzen dituzte. Espazio parte-hartzaile bat proposatzen du haurrentzat eta helduentzat, jolasten eta pedagogiaz, arkitektura eta ondarearen aktibazioa arakatzeko.

Gure lurraldeko industria-jarduera ekonomiaren motor handia izan arren, ingurumen-inpaktu garrantzitsua sortu du, eta gure geografia marraztu du lerro luzeetako eta geometria sendoetako eraikinekin. Tailer ireki honetan espazio publiko bat aktibatuko da TAC! Festibaleko pabiloiren ondoan, eta, horretarako, arkitektura suntsikor txiki bat eraikiko da. Elementuek ondare preziatu hori ekarriko dute gogora eta balioa emango diote. Tailerrak TAC! Festibaleko pabiloian bertan garatuko dira, eta eremu hori ikaskuntza-toki, belaunaldien arteko topagune eta arkitekturara hurbiltzeko eremu gisa finkatuko da.

Tailer irekia edukiera bete arte (20 pertsona)

Maushaus tailerra Mugak/ Bienalean Argazkia: @MikelBlasco

Jarduerak

JARDUNALDI PROFESIONALAK

URR. 16
09:30ean

Euskadiko industria-ondareko baliabide turistikoen topaketa

Lan-jardunaldia Industria turismoko BBAGren eragileentzat, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak antolatuta. Helburua da aurrerapausoak ematea sektorearen koordinazioan eta estrategietan eta Eusko Jaurlaritzako Industria Turismoari buruzko Planaren egoera eta prozesu parte-hartzailea aurkeztea.

URR. 29
10:00etan

Bilbao Urban & Cities Design

Elkarte honek profesionalen arteko jardunaldiak eta trukeak bultzatzen ditu hiri-eredu berriei buruz eztabaidatzeko. Topaketak konbinatzen ditu ikuspegi estrategikoa, ezagutzaren transferentzia eta networkinga.

AZA. 06
18:00etan

Toki Dotoreak

Topagune honek kultura-proiektuei erreparatzen die, baldin eta industria-eremuak aktibatzeko eta biziberritzeko gai badira sormen- eta topaketa-modu berrien bidez. Esparru horretan, besteak beste, **LabeaSonic, Dantz Festibala eta Veta Festibala** ekimenak aurkeztuko dira, adibide baitira ekoizpen-ingurune zaharrak berriz programatu eta esperimentazio, partaidetza eta kultur dinamizazioko gune bihurtzeko.

Dantz eta Veta Festibalak

Jarduerak

INDUSTRIAL SATURDAYS

URR. 31
AZA. 14
19:00etan

Industrial Saturdaysek bi kultur eta turismo esperientzia proposatzen ditu Labe Garaiaren inguruan, espazioa aktibatzeko zentzumenaren eta taldearen ikuspegitik. Hitzorduok gonbita luzatzen dute industria-ondarea berraurkitzeko musikaren, girotzeren eta tokiko zuzeneko bizipenen bidez.

Lehenengo saioa urriaren 31n izango da, Gau Beltzean (Halloween), alegia, eta Labe Garaian murgiltzeko esperientzia eskainiko du, bere ikuspegi oroigarriena arakatuz narrazioaren, argien eta antzezlanaren bidez. Bigarren saioa azaroaren 14an egingo da, eta jazz eta blues kontzertua konbinatuko du ardoz beteko den kopa batekin ingurune berezi batean, lagunarteko atmosfera garaikidea sortuz.

Jarduerak

Labeasonic de ElectrART

LABEART SAIOAK
(musika esperimentala, hots-artea eta arte elektronikoak)

(OR.)
URR 16
URR. 30
AZA. 13

19:00etan

(LR.)
URR. 24
AZA. 07

18:00etan

ElectrARTen LabeArt saioek bost topaketen zikloa osatzen dute, eta musika esperimentalaren, hots-artearen eta arte elektronikoen arteko bidegurutzea arakatzen dute.

Azken urteetan, zuzeneko musika esperimentala, hots-artea eta arte elektronikoak finkatuz joan dira kultur hizkuntza sendo gisa jende berriarekin konektatzeko, batez ere kultura garaikidea, teknologia eta berrikuntza artistikoa gustuko dituzten horiekin. Diziplina horiek kultur kontsumoaren formatu konbentzionalak hausten dituzte, eta zentzumen-esperientzia murgiltzaileak proposatzen dituzte, askotan paregabeak eta errepikaezinak, ikuslea toki aktibo batean jartzeko proposamen artistikoaren barruan.

Jarraian, LabeARTen barruan programatutako 5 saioak zehazten dira:

LabeART (1)

IKUS-ENTZUNEZKO PERFORMANCEA / ZINEMA HEDATUA, MUSIKA ESPERIMENTALA ETA FILMA ZUZENEAN MANIPULATZEA

URR. 16
19:00etan

Hipnagògica zuzeneko ikus-entzunezko performance bat da, eta nahasten ditu musika esperimentala, zinema abstraktua eta film-hurbilketa Super 8 eta 16 mm-ko filmak manipulatuz. Piezak esperientzia murgiltzailea sortzen du; irudia eta soinua elkar lotzen dira pertzepzio-fluxu berean, teknologia analogikoak baztertuz bere jatorrizko eginkizunetik, soinuaren portaera fisikoa arakatzeko bibrazio, mugimendu eta materia gisa.

Vic Baladoch (Rubí, Bartzelona) soinu eta ikus-entzunezkoen artista eta kultur kudeatzailea da. Argazkigintza ikasi zuen Bartzelonan, baina soinuaren eta formatu hibridoen esperimentaziorantz bilakatu zen, zeinetan irudia, soinua eta espazioa nahasten diren. 2019az geroztik, zinta magnetikoen, landako grabaketen eta teknologia zaharkituen adierazpen-aukerak ikertzen ditu, eta live ambient, drone eta noiseren proiektuak garatzen ditu, hala nola “Bidaia Bakartia”. Nada Eterna zuzentzen du, soinuen, ikusizkoen eta performancearen jardunbide garaikideetarako plataforma eta Andrea Petit “Ruidøcular”ekin batera zuzentzen du zinema hedatuaren ikuspegitik mikroskopia esperimentala, gailu optikoak eta elektroakustika konbinatzen dituen proiektua.

LabeART (2)

MUSIKA ESPERIMENTALA / POLIFONIA PROZESATUA ETA ELEKTRONIKOA

URR. 24
18:00etan

Pieza esperimental hauek Jauregiko Kantutegiko (XV.-XVI. mendeak) ahots-polifoniak eraldatzen dituzte, sintetizadoreak eta prozesu elektronikoak erabiliz, arriskuan dauden hegaztien kantuekin nahastuta. Emaitza hots-paisaia liminala da –presentzia eta absentzia, oroimena eta aurrerapena, natura eta aparatua– Reynolds eta Fisherren hauntologiarekin berban. Ikuspegi horretatik, ondarea materia bizia da, eta eraldatzeko gai da, bai eta oroimen-modu berriak sortzeko gai ere.

Severine Beata Marta Peláez Corchsen goitizena da, Malagako musikologoa, irakaslea, ekoizlea eta konpositorea, one-woman band gisa dihardu. Bere hotsen unibertsoa minimalismo, sci-fi ambient eta noiseren artean mugitzen da, melodia eta musika folklorikoaren zikloetatik abiatuta, sintetizadore analogiko eta digitalekin nahastuta zuzenean. Granadako undergrounden trebatu zen, eta “El Ojo Brillante” (2018) eta “La Era del Trance” (2023, Repetidor) argitaratu zituen. Reina Sofía Museoan, MediaLab Prado, Matadero Madrid, Ca2M, BilbaoArte eta LEM Gràcia Territori Sonorren izan ditu bere emanaldiak.

LabeART (3)

HOTS-ARTEA / ELECTROMAGNETISMOA ZUZENEAN

URR. 30
19:00etan

Hots-arteko proiektu honek musika-sormena arakatzen du uhin elektromagnetikoetatik abiatuta, elektronika, fisika eta musika batuz gure frekuentzien ingurunea entzungarri egiteko. Gailu analogikoek, hala nola irrati-telebistek, TB ereduen sorgailuek, kalkulagailuek edo walkie-talkiek, elkarrekintzan dihardute espektro elektromagnetikoa aldatuz, sintetizadore eta ustekabeko erritmo-kaxa gisa funtzionatuz.

Polifeme da María Cervellóren izen artistikoa. 2012az geroztik, Madame Mim diziplina anitzeko eremuaren kultur kudeaketa darama, erreferentzia musika elektronikoaren eta esperimentalaren zikloetan. Bertatik pasa dira The Space Lady, Bitchin Bajas edo Hiro Kone artistak. 2017an, Polifeme proiektu pertsonalari ekin zion, eta 2018tik jardun du, besteak beste, PinPanPun, Volumens edo LEM festibaletan, honako artista hauekin eszenatokia partekatuz: Dave Phillips, Pierce Warnecke, Sun Araw edo Dame Area. Bere hots-ikerketari esker, oso konbentzionalak ez diren gailuen erritmo-aukerak arakatu ditu. Hala, irrati-telebistekin, elektrokardiografoekin edo plasma-bolekin aritu da, eta egun sekuentziadore bat garatzen dihardu itsas radarraren pantailatik abiatuta.

LabeART (4/5)

ELEKTRONIKA ESPERIMENTALA

AZA. 7
18:00etan

Perkusioaren oinarriarekin eta diziplina anitzeko ikuspegia baliatuta, RRUCCULLAk hots-paisaia berritzaileak sortzen ditu zuzeneko instrumentuak ekoizpen digitalarekin elkartzeko. Lanean sartuta daude konposizioa, ekoizpena, ikus-entzunezkoak instalatzea, zuzeneko emanaldia eta hots-diseinua zinema eta hedabideetarako.

AMBIENT MUSIKA ESPERIMENTALA SINTETIZADOREEKIN

AZA. 13
19:00etan

A Beginning To An End albuma 2024an argitaratu zuen Eclectic Reactions Records disko-etxeak.
Hots-artefaktu bat da hogeita bost minutuko bi lanekin eta esperimentazioaren eta minimalismoaren artean dabiltza, drone, ambient eta abangoardiatik pasata. Elektronika eta xehetasun fina dira lan oroitarazlearen ardatzen. Empty Files finkatzen dute nortasun handieneko proiektu gisa euskal eszenan azken hamarkadan. Empty Files proiektuak bere oinarria Bilbon du, eta kide hauek ditu: Txufo Wilson (sortzailea), Jose Lastra, Imanol Fortes eta Iñigo Benito. 90ko lehenengo urteetako estetika elektronikoaren eta industria ostekoaren, psikodeliaren eta trip-hoparen artean mugitzen da. 2013an sortu zen izen bereko EParekin eta diskografia finkatuz joan da. Hor daude “Shadows” (2018) eta “Lost Files” (2021), album kontzeptual instrumentala, Forbidden Colours disko-etxeak argitaratutakoa eta Aitor Etxebarriak ondutakoa.

Jarduerak

ENPRESA JARDUNALDIA (ARCELOR MITTAL)

AZA. 5
18:00etan

AZA. 8
12:00etan

Arcelor-Mittalen enpresa-jardunaldia bi jarduera osagarriren bidez antolatuko da; helburua da solasean jartzea industria siderurgikoa eta arkitektura garaikidea.

Más Metal. Lehenengoan, industriako ordezkariak eta arkitekto gazteak elkartuko dira berrikuntza arkitektonikoko proiektuetan altzairuzko produktuak aplikatzearen inguruan. Jardunaldi honetan aurkezten den proposamenak hiru estrategia desberdin kontuan hartzen ditu altzairua erabiltzeko orduan: arkitekturen egitura- eta eraikuntza-zintzotasuna espazio publikoa hobetzeko, esperimentazioa inguratzaileen eraikuntza parametrikoan edo etxebizitzen prefabrikazioa.

Bigarren jardueran **ate zabaleko jardunaldia** antolatuko da fabrikan. Azaroaren 8an izango da ospakizun gisa eta langileei eskertzeko ekitaldi modura. Bisita honi esker, jendea ekoizpen-prozedurara hurbilduko da eta industria-ondare biziaren, berrikuntzaren eta lanaren giza dimentsioaren arteko lotura indartuko da.



FERRUM Pabiloi irabazlea TAC! Sestaon

Jarduerak

ENPRESA JARDUNALDIA (ARCELOR MITTAL)

AZA. 5
18:00etan

1. SAIOA. MÁS METAL
JAITSI, IKUSI, GOZATU ETA IGO

Sestaoko Labe Garaiko parkera begira dagoen behatoki-eskailerak 25 metro inguruko desnibela salbatzen du Txabarri auzoaren eta industria zabalgunearen artean. Iparraldetik hegoaldera, esku-hartzeak ikusizko harreman sinbolikoa ezartzen du bi ondare-mugarriren artean: 1 zenbakiko Labe Garaia eta Portugaleteko Bizkaia Zubia. Multzoan daude igogailu-dorrea eta hiri-eskailera sigi-saga, bi hegalekin bukatutakoa behatoki panoramiko izateko. Irisgarritasuna bermatzeaz gain, piezari esker, industria eta itsas paisaia berraurkitzen dira, Sestaoren nortasun siderurgikoa sendotuz eta bere ondarea aktibatuz azpiegitura ireki eta lineal baten bidez inguruneari begiratzen diona.

ELE Arkitektura estudioak arkitektura, hirigintza eta diseinuko proiektuak garatzen ditu ikuspegi garaikidetik; testuinguruarekiko sentibera da, eta ingurune eraikiaren eraldaketarekin konprometituta dago. Bere jardunbidean ikerketa, estrategia eta proiektua nahasten dira eskala eta programa desberdinei aurre egiteko, espazio publikoko esku-hartzeetatik eta hiri-berroneratzetik hasita ekipamendu, etxebizitza eta industria-ondarearekin lotutako proposamenetara arte.

Estudioak bitartekaritza-tresna gisa ulertzen du arkitektura gizarte-beharren, tokiko oroimenaren eta esku-hartze bakoitzaren aukera materialen artean. Lanaren helburua da espazio irisgarriak, iraunkorrak eta adierazgarriak sortzea, paisaiaren, herritarren eta lurraldearen artean harreman berriak aktibatzeko gai dena. 1. zenbakiko Labe Garaiaren Eskailera Behatokia proiektu honetarako **TARTE Arkitektura** estudioarekin lankidetzan aritu da.

@AitorEstevez

Jarduerak

ENPRESA JARDUNALDIA (ARCELOR MITTAL)

AZA. 5
18:00etan

1. SAIOA. MÁS METAL
CRISALYS PABILOIA

Esku-hartze arina marrazki eta eraikuntzaren artean; “airean gazteluak eraikitzearen” ideia gauzatzen du, kontzeptu geometriko ukiezina egitura fisiko bihurtuz. Mongeren gainazaletan oinarrituta, Grasshopperren diseinu parametrikoak kurbatura bikoitzeko gainazala sortzen du eta diskretu bihurtzen da kurba deformatuetan gogora ekartzeko Antropologia Museoko ganga-habeartearen ildaskak. Egiturak bi osagai bakarrik erabiltzen ditu: 6 mm-ko altzairuzko hagak eta lotura zilindriko bakarrak, ortogonalean konektatuta. Muntatze eta desmuntatze azkarrak errealitate areagotuarekin (Fologram) erraztu ziren; hala, zinbriak kendu ziren eta zuzenean espazioan marraztearen ideia indartu zen.

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko Fab Lab Donostiak diseinatu eta eraiki du pabiloi hau. Proiektua arkitekto eta eskolako irakaslea den **Francisco González Quintialek** pentsatu, garatu eta zuzendu du **José Real Cambasekin** –arkitektoa eta fabrikazio digital robotizatuan espezializatua–eta **Álvaro López Rodríguezekin** batera. Eraikuntza- eta muntatze-taldean honako hauek parte hartu dute: **Edurne Argandoña, Thais González, Leticia Ochoa eta Luis Gurruchaga.**

@JoseReal

Jarduerak

ENPRESA JARDUNALDIA (ARCELOR MITTAL)

AZA. 5
18:00etan

1. SAIOA. MÁS METAL
GUADALUPE ETXEA, AZKARRA ETA TXUKUNA.

Guadalupe Etxea Gijóngo (Asturias) kanpoaldean dago. Bolumen arina da, eta lur irregularraren gainean flotatzen du. Altzairuzko eskeletoa oso-osorik fabrikatu zen tailerrean. Moduluetan iritsi zen, eta ia 48 ordutan mihiztatu zen, landaretzaren eta topografiaren gaineko aztarna minimizatuz.

Metalezko egitura arinak eraikuntzaren logika definitzen du: inguratzaile zehatza eusten duten zutabeak eta habeak eta zafla uhinduko estalkia, Espainiako iparraldeko industria-oroimena gogora dakarrena. Piloteen gainean goratzen denez, etxea aldapara egokitzen da, eta landa-paisaiari bistak irekitzen dizkio. Modu horretan, frogatzen da nola altzairuan fabrikatzeak zorroztasun teknikoa eta etxe-berotasuna negozia ditzakeen.

HANGHAR 10 urteko Madrilgo arkitektura korporazioa da, eta Eduardo Medierok zuzentzen du (Harvard University, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa). **Eduardo Medierok** klaseak eman ditu izen handiko unibertsitateetan eta nazioarteko zenbait beka jaso ditu. Bere estudioak proiektuak garatzen ditu zenbait eskalatan eta programatan, eta zalantzan jartzen dituzte konbentzionalismoak, errealitate berriak proposatzeaz gain soluzio espazial eta material berritzaileen bidez. Bere lana nazioko eta nazioarteko hedabideetan argitaratu da, hala nola Wallpaper, Frame, Arquitectura Viva, El Pais, Dezeen, Plot, AD edo Elle Decor. HANGHAR finalista izan da League Prize 2021en eta bere lana aintzatetsi da honako sari hauetan: Brick Award 2024, FAD 2022, Arquia Próxima 2022, FRAME 2021, COAM Emergente 2022, 2021 eta 2020, besteak beste.

@RoryGardiner

Jarduerak

ITSASADARRA ONDARE (IM)MATERIAL GISA

Programak itsasadarraren oroimen immaterialari erreparatzen dio, lurraldearen, erkidegoaren eta nortasunaren artean partekatutako kontakizunaren ardatz antolatzaile gisa. Ondare bizi modura ulertuta, oroimen horri esker, lotura historiko, sozial eta produktiboak antzeman daitezke eta gaur egun hiria biziberritzeko izan daitezke. Bi jarduerak Punta Begoña Fundazioaren laguntzarekin egiten dira.

AZA. 12
18:00etan

PATRIMONIO INMATERIAL DE LA RÍA LIBURUA AURKEZTEA

Patrimonio inmaterial de la Ria liburuaren aurkezpenak (María Peraita eta Luis Zorrozúa) begira horretan sakontzen du. Hala, jakinduria, kontakizunak eta adierazpenak biltzen ditu itsasadarraren inguruneko irudimen kolektiboarekin lotuta eta balioa ematen die. Argitalpena hurbilketa sentibera bat da tokiko nortasuna eraikitzen lagundu duten elementuetara.

AZA. 14
10:00etan

BI ALDEAK IBILBIDEA

Bi Aldeak ibilbideak itsasontziz mugitzea proposatzen du Getxo eta Sestaoren artean. Ibilbidean itsasadarraren bi aldeen arteko harremana ezagutuko da behaketaren, mugimenduaren eta kontakizun partekatuaren sekuentzia bat tarteko. Solasean jarriko dira paisaia, oroimena eta hiri-eraldaketa.

Vida entre Mareas ikerketa-proiektua
Webeko irudia: Punta Begoña

Jarduerak

BISITA GIDATUAK LABE GARAIAN

AZA. 14
AZA. 15
11:00etan

Sestaoko Labe Garaiko bisita gidatuek Euskadiko industria-ondarearen mugarri adierazgarrienetik ibilbidea proposatzen dute. Labe Garaia Kultur Ondasun izendatu dute Monumentu kategorian. Bisita honen bidez, jendea konplexuaren historiara hurbil daiteke, Sestaoko eraldaketan haren zeregina ezagutu eta gauzatzen ari diren lanak ulertu berreskuratu eta balioa emateko.

TAC! Festibalaren esparruan, jarduerak industria-oroimenaren, arkitektura garaikidearen eta espazio publikoaren arteko elkarrizketa sendotzen du, Labe Garaia ezagutza partekatuko toki eta herritarren eta ondarearen arteko topagune bihurtzeko.

Oharra: Urriaren 16an, 17an, 18an, 23an, 29an eta azaroaren 14an, bisitak programatutako jardunaldien barnean egingo dira.

Izen-emateak: visit@sestao.eus

Jarduerak

HOTS-PAISAIAK

URR. 13
AZA. 15
20:00etan

Hots-paisaiak argiaren, kolorearen eta soinuaren arte-esperientzia proposatzen du Sestaoko Labe Garaiaren jarduera eta oroimen kolektiboan utzi duen aztarna gogora ekartzeko. Hizkuntza abstraktuaren bidez, piezak balioa ematen dio Sestaoko industria-iraganari eta Bizkaian izan zuen inpaktuari, ondarea, emozioa eta sormen garaikidea konektatuz.

Jarduerak Labe Garaiaren ingurunea zentzumen-eszenatoki bihurtzen du. Bertan arteak eta industriak solasean dihardute oroimenak gogora ekartzeko eta iragan partekatua berrinterpretatzeko begirada garaikide batetik.

ElektrARTen argiak inauguratzea Labe Garaian

Egutegia

SESTAO

① JATORRIA ETA ERALDAKETA
② LANAREN KULTURA
③ INDUSTRIA ETA IKASKUNTZA
④ ERABILERA BERRIAK

informazio gehiago honako esteka hauetan: tacfestival.com eta www.sestao.eus)

AT.	AR.	AZ.	OG.	OL.	LR.	IG.
	URR. 13 ④ 12:00 Inaugurazio-jardunaldia 12:30 TAC! Metro erakusketa bisitatzea 18:00 Bisita gidatua Ferrum pabilioian 20:00 Hots-paisaia	URR. 14 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 15 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 16 ①④ 9:00 Topaketa profesionala Euskadiko industria-ondareko baliabide turistikoak 17:00 Arkitektura Gaztea topaketa (1) 19:00 Labe Art (1) 20:00 Hots-paisaia	URR. 17 ①③ 10:00 Rialiaren 20. urteurrena 20:00 Hots-paisaia	URR. 18 ①③ 11:00 Ondarearen Europako Jardunaldia 20:00 Hots-paisaia
URR. 19 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 20 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 21 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 18:00 TAC! erakusketa inauguratzea Musika Eskolan 20:00 Hots-paisaia	URR. 22 ①③ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 18:00 Liburuaren aurkezpena "El Horno Alto Nº1 de Altos Hornos de Vizcaya" 20:00 Hots-paisaia	URR. 23 ①③ 10:00 Nazioarteko topaketa Labe Garaiak berreskuratzea (AVPIOP) 18:00 El Crisol dokumentala 20:00 Hots-paisaia	URR. 24 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 12:00 Tailerra familian (DeTalleres) 18:00 Labe Art (2) 20:00 Hots-paisaia	URR. 25 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia
URR. 26 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 27 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 28 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	URR. 29 ①②③ 10:00 Jardunaldi profesionala (Bilbao Urban Cities & Design) 18:00 LAN Zinemaldia 20:00 Hots-paisaia	URR. 30 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 17:00 Arkitektura Gaztea topaketa (2) 19:00 Labe Art (3) 20:00 Hots-paisaia	URR. 31 ①③ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 12:00 Tailerra familian (DeTalleres) 19:00 Industrial Saturdays (Gau beltza) 20:00 Hots-paisaia	AZA. 1 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia
AZA. 2 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 3 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 4 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 5 ①②③ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 18:00 Mas Metal topaketa (Arcelor-Mittal) 20:00 Hots-paisaia	AZA. 6 ①③ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 18:00 Toki Dotoreak (Labeasonic, Dantz, Veta) 20:00 Hots-paisaia	AZA. 7 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 12:00 Tailerra familian (Maushaus) 18:00 Labe Art (4) 20:00 Hots-paisaia	AZA. 8 ①②③ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 12:00 Ate zabaletako jardunaldia (Arcelor-Mittal) 20:00 Hots-paisaia
AZA. 9 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 10 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 11 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia	AZA. 12 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 18:00 Liburuaren aurkezpena Patrimonio Inmaterial de la Ria. 20:00 Hots-paisaia	AZA. 13 ①④ 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 17:00 Arkitektura Gaztea topaketa (3) 19:00 Labe Art (5) 20:00 Hots-paisaia	AZA. 14 ①③ Closing 10:00 Bi Aldeak ibilbidea (Bisita Punta Begoña, ibilbidea itsasontziz, Bisita Labe Garaian + Hamaiketakoa) 19:00 Industrial Saturdays 20:00 Hots-paisaia	AZA. 15 ① 11:00 Bisita gidatua Labe Garaian 20:00 Hots-paisaia

TAC! Festival de Arquitectura Urbana

Antolatzaileak:

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

fundación arquia

Sestao Udala Ayuntamiento

Koordinatzailea:

sestaoBERRI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

Partner akademikoak:

EHU | ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA
ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

IED KUNSTHAL

Mediako partnerrak:

radio 3 · archdaily · METALOCUS ARQUITECTURA · AV · ROOM · Diseño Interior · Tectónica · conarquitectura ediciones · on diseño

Laguntzaileak:

INDUSTRI ONDARE ETA HERRI LANEKO EUSKAL ELKARTEA | ASOCIACIÓN VASCA DE PATRIMONIO INDUSTRIAL Y OBRA PÚBLICA

ArcelorMittal

Bilbao Urban & Cities Design

COAVN COLEGIO OFICIAL DE ARQUITECTOS VASCO-NAVARRO
EUSKAL HERRIKO ARKITEKTOEN ELKARGO OFIZIALA

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

urbanbat

Getxo PUNTA BEGOÑA Galeriak

ELEKTR.ART arte. tecnología. emoción.

PUENTE BIZKAIA

Rialia industria museoa

metro bilbao

Informazio gehiago honako esteka hauetan: tacfestival.com y www.sestao.eus